

# Udal talde politikoaren iritzia



## MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA, GETXOKO KONPROMISOAK

Getxo udalerriko garapen-proposamenen eta ekintza politikoaren ardatz nagusia dira pertsonak. Amaia Agirre alkatea eta bere taldeak argi dute zein den EAJ-PNVren konpromisoa: mugikortasuna eta irisgarritasun unibertsa.

Horren harira, esan behar da serioak eta sendoak diren konpromisoak egi bihurtzen direla. Hala diogu, argi eta ozen. Laster amaituko dira Areetako geltoki-plaza birmoldatzeko eta Kale Nagusia zati batean oinezkoentzat egiteko lan zoragarriak. Getxoko biztanleek gozatzeko proiektua da, herritarrek gozatzeko, alegia. CO2-ko isurketa gutxiago, ibilgailu pribatuen trafiko gutxiago, eta plaza bat, topagune eta aisiako espazioak barne hartzen dituen birika berdea.

Jada bete egin diren eta oso harrera ona izan duten konpromisoei dagokienez, aipatzeko da Zugatzarteko obra; izan ere, etorbide zoragarria eta atsegina da orain, irisgarriagoa eta mugikortasun jasangarriagoa bultzatzen duena: zirkulazioa motelduko da, segurtasuna areagotuko da, eta, gainera, Getxoko hainbat toki lotuko dira gure bidegorri-sarearen bitartez, zeinak handitzen eta hobetzen ja-



rraitzen baitu. Bidegorri-sarearekiko konpromisoa agerian geratu da ere. Makaleta etorbidean, Areneazpiko bidegorriarekin lotzeko xedez garbigunerako sarbidearen eta Faturako biribilgunearen artean egindako obrak direla eta. Ondoren, hobekuntzak egiteko txanda izango da, bai eta Makaleta eta Salsidu lotzeko obrena ere.

Bidegorrien eta hobekuntzen harira, bizikletak mailegatzeko GetxoBizi zerbitzua aipatu behar da, zeina indarrean egongo baita Bizkaiko Foru Aldundiarekin hartutako konpromisoa bete eta Bizkaibizi eskaini arte. Bien bitartean, Getxoko EAJ-PNV taldeak eta Amaia Agirrek mugikortasun jasangarriare-

kiko duten konpromisoa benetakoa den erakusgarri, Getxon aurrera egiten du adierazitako banakako garraioak, partekatutako bizikleten bidez. Hala, bizikletak jasotzeko puntuetan 72 bizikleta mekaniko ditugu gaur egun; erosoagoak eta ergonomikoagoak dira, Getxoko auzoetan garraio-zerbitzu publiko gisa erabiltzeko.

Mugikortasuna eta irisgarritasuna. Konpromiso argiak dira, eta horiei lotuta ere egingo da laster igogailu berria. Gauzak horrela, jada dauden beste lau igogailuen zerbitzuari gehituko zaio, Faturako beheko aldeko ardatza Algortako erdiguneko garraio-zerbitzu publikoekin, osasun-zerbitzuekin, saltokiekin eta ostalaritza-lokalekin lotzeko.

Izan ere, denbora behar da proiektuak garatzeko, eta batzuetan denbora asko behar dela badirudi ere, emandako hitza benetakoa denean, egi bihurtzen dira asmoak.

Konfiantza eta ilusioa jada gozatu ditzakegun proiektuengatik, bai eta helteke daudenengatik ere.



## #ANDRADE2023 GETXO #DENONARTEAN



Getxok aldaketa bat behar du. Aurrera egin behar du. Ezin dezake geldirik jarraitu, ahanzturan erori eta hobetzeko aukerak galdu. Aldaketa hori egiteko unea heldu da.

Aldaketa hori posible da PPrekin eta gure hautagai izango denarekin, Eduardo Andrade. Politikan 21 urteko esperientzia du eta ezagutza handia du gure udalerriko bazter eta arazoei buruz; hala, Andradek konpromisoa

hartzen du denon artean Getxo udalerriri bizia eta dinamikoa izan dadin lortzeko, aisiari eta kulturari lotutako eskaintza zabala duena eta benetako etxebizitza-eskaintza duena, gure gazteak ondoko udalerrietara joan ez daitezten, gaur egun gertatzen den bezala. Andradek erakutsiko du bada-goela gauzak egiteko beste modu bat eta Getxok aldaketa hori merezi duela. #esnatuGetxo



## ROMOKO LOPE DE VEGA 12 ERAIKINAK

Aurreko asteartean Udaletxeko langileak eta Udal Gobernuko ordezkariak, Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren babespean, Romoko Lope de Vega 12 eraikinetara sartu ziren, eraisketa hasi aurretik espazioa husteru. Izan ere, urtarrilaren 11n jakin genuen Justizia Auzitegiak atzera bota duela Ibar Nagusien Etxeak aurkeztutako errekurtsioa, eraisketa bertan behera uztea eskatzen duena.

Getxoko Udal Gobernuak, Romon egindako erreferendumei entzungor eginez, espazio hori herritarrei kendu eta Bizkaia osoari begirako proiektua egin nahi du bertan; belaualdien arteko zentroa, hain zuzen ere. Romoko herritarren izenean, baina Romoko herritarrei entzun gabe.

Eraikin horiek, herriaren ondare di-

renak, mantendu eta birmoldatu beharrean, eraitsiko dituzte. Hala ere, eraikin hauek beren jatorriari herriarentzako donazioa izan zirela kontuan izanda, euren erabaki behar lukete espazio honen etorkizuna.

Zertarako eraitsi komunitatearen ondare dena? Zertarako inposatu proiektu bat jada funtzionatzen duten proiektuak dauden leku batean? Honek argi erakusten du Udal Gobernuak jarraitzen duen politika: "eraitsi eta eraiki", bidean desagertzen dena kontuan izan gabe. EH Bildun argi daukagu hau ez dela bidea eta Romon prestatzen ari diren ekimenetan parte hartzeko deia egin nahi dizuegu, auzo-lotsari herri indarraz erantzun diezaiogun.

Herri ondarea defenda dezagun! Lope de Vega 12 aurrera!



## INOIZ EGON DEN PENSIO-IGOERARIK HANDIENA

Getxo udalerriko 20.000 pentsiodun baino gehiago Pedro Sánchezen Gobernuak onetsitako % 8,5eko igoreraren onuradun izango dira; hortaz, Getxoko erretiroaren batez besteko pentsioa 1.749 eurokoa izango da, hau da, 2022ko urtarrilean baino 152 euro gehiagokoa. Pentsioen eguneraketa horren bidez, erantzuna emango zaio Alderdi Sozialistak Gobernura heldu zenetik izan duen erronkarik handienari: politikak berriz ere jarri dezala erdigunean benetan garrantzitsua dena, herritarren ongizatea. Pentsioetan inoiz egon den igoerarik

handiena izango da, eta Espainiako 9 milioi pentsiodun baino gehiagori eragingo die; hala, behar bezala errealizatzen den pentsioa kobratzeko eskubide konstituzionala izango dute, PSOEek eskubide hori babesten baitu. Gauzak horrela, sozialistok bete egiten dugu funtsezkoak diren gure konpromisoetako bat: gure nagusiek pentsio duinak izatea. Duintasun-kontua da, pentsiodunek ez dezaten erosteko ahalmena galdu, bai eta justiziakoa ere, gure nagusiei itzultzeko urte askotan egin duten ekarpena.



## ERAISKETARI EZ!

Gobernu-taldeak tematuta jarraitzen du Nagusien Etxea eraitsi nahiarekin. Borroka judiziala oraindik amaitu ez bada ere eta errekurtsio gehiago aurkezteko aukera bada ere, aurreko astean udal-brigadek eraikinaren barrualdea hustu zuten poliziaren presentzia izugarriarekin, aurrekaririk eta arrazoirik gabe. Kolpe latza izan da Nagusien Etxearen erabiltzaileen-tzat; izan ere, izugarritzko ezintasu-

nez ikusi behar izan zuten oso egoera onean zeuden altzari batzuk desmuntatzen eta suntsitzen zitzutela. Eraikin horien eta auzoaren nortasunaren aldeko borroka kaleetan ere jarraitzen du. Hori dela eta, eraispenaren aurka deitutako manifestaziora joango gara; **otsailaren 12an (igandea)** izango da, eta **13:00etan** hasiko da Romoko Santa Eugenia plazan Eraisketari ez!